



DEIALDIA, IRUÑEKO UDALAREN HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOAREN ZERBITZURA ARITZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHICO PROZESUARI DAGOKION ZUZENDARIAREN LANPOSTU HUTS BAT OPOSIZIO-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO, ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO NEURRIAK EZARTZEN DITUEN 20/2021 LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA.

ZUZENDARIAREN OPOSIZIO-LEHIAKETA

**OPOSAKETA FASEA – 1. PROBA
BALORAZIOA: 25 PUNTU
DENBORA: 75 MINUTU**

2024/02/03

**EZ JO HURRENGO ORRIRA
HASTEN AHAL ZARELA ESAN ARTE**



- 1. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua arabera, zein eskubide aitortu eta babesten dira?**
 - a) Katedra-askatasunerako eskubidea.
 - b) Askatasunerako eta segurtasunerako eskubidea.
 - c) Askatasunez sindikatzearen eskubidea.

- 2. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 3. artikulua arabera, Nafarroako Foru Araubidearen izaerarekin bat etorritik, hura Hobetzeak helburu hauek ditu:**
 - a) Nafarroako Erakundeak demokratikoki antolatzea.
 - b) Konstituzio-batasunarekin bateragarriak diren ahalmen eta eskumen guztiak Nafarroako Foru Araubidearen barnean sartzea.
 - c) a) eta b) erantzunak zuzenak dira.

- 3. Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 37. artikulua arabera, Parlamentuko Mahaiari eginkizun hauek dagozkio (adierazi okerra dena):**
 - a) Legebiltzarreko aurrekontuari buruzko proiektua onestea.
 - b) Eledunen Batzarrari entzun ondoren, bilkuraldi bakoitzerako Batzordeen eta Osoko Bilkuraren jardueren egutegia ezartzea.
 - c) Legebiltzarreko aurrekontuaren betetzea zuzendu eta kontrolatzea.

- 4. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 23. artikuluaekin bat, funtzionarioak jarduneko zerbitzuan egonen dira:**
 - a) Nafarroako Foru Komunitatearen, Estatuaren, Autonomia Erkidego baten edo edozein Entitate, Korporazio edo Erakunde Publikoren zerbitzuko izendapen libreko kargu politikoak betetzen dituztenean.
 - b) Edozein Administrazio edo erakunde publikotan aldi baterako zerbitzu-eginkizunen bat eman zaienean, epe zehatz batetan jardura edo zeregin bat egiteko.
 - c) Beste administrazio publiko batean edo lan egiten zutena ez zen beste administrazio baten mendeko nortasun juridiko propioa duen erakunde batean zerbitzua ematera iragaten badira, betetzen zuten lanpostua hemezortzi hilabetez gordeko zaielarik.

- 5. Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean araututako adjudikazio prozedura mota baten arabera, edozein enpresak edo profesionalek eskatzen ahal du prozeduran parte hartzea, baina kontratazio organoak hautatzen dituen enpresa edo profesionalei bakarrik egiten zaie gonbidapena eskaintza aurkezteko. Zein adjudikazio prozedura mota da hori?**
 - a) Prozedura murriztua.
 - b) Prozedura negoziatua.
 - c) Prozedura erraztua.



6. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 104. artikulua honako hau dio:

- a) Pertsona orok eskubidea du adeitasunez, arduraz eta konfidentziasunez arreta eman diezaioten, bereizkeriarik gabe jaiotza, sexu, arraza, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta.
- b) Pertsona guztiek eskubidea dute Foru Administrazio Publikoaren organoek haren aferak inpartzialtasunez eta berdintasunez tratatzeko eta, gainera, arrazoizko epe batean.
- c) Pertsonak eskubidea dute zerbitzu publikoak berdintasunez jasotzeko, bai eta tratatu pertsonalizatua eta egokia izateko ere. Zerbitzu publikoak behar adinako kalitate mailaz emanen dira; horien etengabeko hobetzea eta kalitatearen ebaluazioa helburu duten kudeaketa ereduak ezarriko dira.

7. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen arabera, baieztapen hauetatik, zein ez da zuzena?

- a) Sailkapen organikoak zehazten diren unitate organikoen arabera bilduko ditu kredituak eta diru-sarrerak.
- b) Sailkapen ekonomikoak kredituak eta diru-sarrerak bakoitzaren izaera ekonomikoaren arabera bilduko ditu.
- c) Sailkapen funtzionalak kredituak eta diru-sarrerak bilduko ditu, lortu nahi diren helburuen izaeraren arabera.

8. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 12. artikuluen arabera, Konstituzioaren 53.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, auzitegiei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea babestea eskatu ahal izanen zaie:

- a) Administrazio-bidetik.
- b) Edonork eskatu ahal izanen die.
- c) Sexuan oinarritutako bereizkeria jasan duten emakumeek bakarrik eskatu ahal izanen diete.

9. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 8. artikuluen arabera, eginkizun hauetako zein dagokio Nafarroako Berdintasunerako Institutuari?

- a) Bere zerbitzuko langileek gaikuntzako eta berariazko prestakuntzako programetan parte har dezaten bultzatu eta erraztea.
- b) Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarduketara integraleko neurriak modu egokian aplikatu eta benetan betetzen direla koordinatu eta bermatzea.
- c) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen genero-berdintasunaren arloko jarduketak koordinatzen direla ziurtatzea.



10. Genero Indarkeriaren kontrako Babes Integraleko Neurriak arautzen dituen abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 4. artikulua babespean, zertan lagunduko du Haur Hezkuntzak?

- a) Haurtzaroan gatazkak modu baketsuan konpontzeko ikasketa garatzen.
- b) Haurtzaroan gatazkak modu baketsuan konpontzearen inguruko jarduerak garatzen eta pertsonen duintasunarenganako eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarenganako errespetua suspertzen.
- c) Ikasleen gaitasuna garatzen, hurkoarekin harreman baketsuak izan ditzaten eta gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna ezagutu, baloratu eta errespetatu dezaten.

11. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arabera, honela antolatuko dira haur hezkuntzako hezkuntza-edukiak:

- a) Haurren esperientziaren eta garapenaren berezko eremuei dagozkien arloetan.
- b) Gaztelania/hizkuntza propioa, arte-hezkuntza eta ingurunearen ezagutza.
- c) Gaztelania/hizkuntza propioa, atzerriko hizkuntza, arte-hezkuntza eta matematika.

12. 3/2020 Lege Organikoaren arabera, zein da curriculumaren definizio zuzena?

- a) Araututako ikasketa bakoitzaren helburuen, konpetentzien, edukien, metodo pedagogikoen eta ebaluazio-irizpideen multzoa hartzen da curriculumtzat.
- b) Araututako ikasketa bakoitzaren helburuen, edukien, metodo pedagogikoen eta ebaluazio-irizpideen multzoa hartzen da curriculumtzat.
- c) Araututako ikasketa bakoitzaren helburuen, konpetentzien, edukien eta metodo pedagogikoen multzoa hartzen da curriculumtzat.

13. Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren arabera, baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- a) Haurrak jaiotzen direnetik 3 urtera bitarte hartzen dituen hezkuntza-etapa da Haur Hezkuntza, eta borondatezkoa da.
- b) Haurrak jaiotzen direnetik 6 urtera bitarte hartzen dituen hezkuntza-etapa da Haur Hezkuntza, eta borondatezkoa da.
- c) Haurrak jaiotzen direnetik 6 urtera bitarte hartzen dituen hezkuntza-etapa da Haur Hezkuntza, eta derrigorrezkoa da.

14. Hiru aukera hauetatik, zein ez dago 61/2022 Foru Dekretuan jasota Haur Hezkuntzako funtsezko konpetentzia gisa?

- a) Konpetentzia digitala.
- b) Herritar konpetentzia.
- c) Konpetentzia psikomotorra.

15. Iruñeko Udaleko Udal Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren organigramaren arabera, noren menpe dago funtzionalki Zuzendaritza Teknikoa?

- a) Alkate/lehendakariaren menpe.
- b) Hezkuntza, Berdintasun eta Kultura Aniztasuneko Alorreko zuzendariaren menpe.
- c) Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoko Gerentziaren menpe.



16. Nafarroako Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan Hezkuntza Proiektua eta Proposamen Pedagogikoa prestatzeko gida orientagarrian zuzendaritzaren eginkizunen eta lanen adibide hauek zehazten dira:

- a) Ikasgelan egiten diren jarduerak planifikatu eta garatzea: eguberriak, inauteriak, ikasturte bukaera, etab.
- b) Ikasturtearen memoria eta balizko bestelako memoriak egitea.
- c) Ikasleei buruzko informazioa jaso eta ematea.

17. Zer da Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren (IHP) proposamen pedagogikoa?

- a) Ikastetxe baten nortasuna jasotzen duen dokumentua: printzipioak, balioak eta jarduteko lehentasunak.
- b) Hezkuntza-lana arautuko duten helburuak, edukiak eta printzipio pedagogiko eta ebaluaziokoak jasotzen dituen IHParen zatia.
- c) Ikastetxearen funtzionamendu-arauak jasotzen dituen dokumentua.

18. Baieztapen hauetatik, zein da okerra? Estilo permisiboan:

- a) Gurasoek modu onartzailean, baieztokan eta onberan jokatzeko dute haurraren bulkaden eta ekintzen aurrean. Bere helburu nagusia haurra gatazkatik eta (helduen) kontroletik askatzea da.
- b) Hau da seme-alabek ikasten dutena: "Nire arazoak konpontzea nire ardura da".
- c) Gurasoek tolerantzia jarrera agertzen dute seme-alaben bulkadekiko, baita agresibitate-adierazpenekiko ere; izan ere, haurrak ez direla erreprimitu behar uste dute.

19. Nor da esaldi honen egilea?

"Aire zabalean (gutxienez barruan ematen dutena bezain luze) egotea, bizitzarekiko zuzeneko interakzioan, haurren oinarritzko eskubide gisa aitortu (eta baliatu) beharko litzateke gure gizartean".

- a) Emmi Pikler.
- b) María Montessori.
- c) Heike Freire.

20. Hauetako zein ez da Eskola Berriaren ezaugarri bat?

- a) Ikaskuntza globalizatua: haurrak bere inguruan dagoena modu globalean hautematen du.
- b) Hezitzailearen figura irakasteko/ikasteko prozesuaren bitartekari edo bideratzaile gisa.
- c) Haurra arbel huts bat edo ezagutzaz bete beharreko izaki bat da.

21. Dorre Arrosa zein pedagogiatako berariazko material sentsoriala da?

- a) Montessori.
- b) Waldorf.
- c) Pikler.



22. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren ildo pedagogikoak printzipio komuntzat hartzen du ludikoaren kalitatearen balioa, eta honako hau zehazten du:

- a) Jolasa da haurren egoteko modu naturala, aztertzeko eta ikasteko. Beraz, gure hezkuntza-praktikan nahikoa da alderdi ludikoa bermatzea.
- b) Komenigarria da material egituratuak erabiltzea, eskaintzen dituzten aukera ezberdinetan harremanetan jartzen ahal direnak.
- c) Ezinbestekoa dugu ludikoaren kalitateari eustea, betiere pentsatu, hautatu eta aukeratu behar ditugularik jolas aberats eta konplexuak egiteko objektuak, proposamenak eta eszenatokiak.

23. Baieztapen hauetatik, zein da okerra? Haurtzaroaren kulturak, printzipio gisa:

- a) Berekin dakar aitortzea haur bakoitzak baduela mundua ulertzeko bere molde etiko, estetiko eta poetikoa, baduela bere bizipen eta sentipenei zentzua ematen dieten hipotesiak, teoriak eta metaforak eraikitze gaitasuna, hartara, nor bere existentzia daukala.
- b) Esan nahi du haur-literaturari hezkuntza balioa ematea.
- c) Esan nahi du uko egiten diogula haurrei gure ideiak inposatzeari, eta ikasi nahi dugula haiekin solasten, ezagutu eta ulertzeko duten berezko gogo horretan haien bidaide izan nahi dugula.

24. Baieztapen hauetatik, zein da okerra? Udaleko haur-eskoletako printzipio komunetako bat den aldetik, zer esan nahi du holismoak?

- a) Arlo edo diziplina isolatuetan banatzea, baita haur-eskolan ere.
- b) Haurrek eskolan bizi duten une orok baduela batasun banaezina eta, hortaz, berez hezigarriak direla.
- c) Garrantzi berekoak direla lantegietako proposamenak, jolasguneetako uneak zein erritu-uneak, hala nola pixoihala aldatzekoa, bazkarikoa edo kuluxka egitekoa.

25. Honako formulazio hauek ikuspegi pedagogiko desberdinei dagozkiela ulertuta, esaldi hauetatik zeinek deskribatzen duen ondoen hezitzailearen jarrera, Reggio Emiliako ikuspegitik?

- a) Entzutea aditzea baino askoz gehiago da. Entzute aktibo eta benetakoaren helburua da haurtzaroko hizkuntza anitzak hautematea munduarekin duten harremanean. Entzutea beste batzuek guri esateko dutenari zentzumen guztiekin irekita egotea da.
- b) Benetako interesa eta benetako lankidetzaren lortzeko ahalegin irekiak direla-eta, hezitzaileak haurra esku sentikor, delikatu eta samurrez ukituko du.
- c) Behaketan funtsezkoa da entzuten jakitea, halakotzat ulertuta enpatia tonikoa izatea, eremu tonikoan doikuntza oso sakona egitea eskatzen baitu.

26. Myriam David eta Geneviève Appellen arabera, nolakoa izan beharko luke jardueraren autonomorako eta jolaserako eremuak?

- a) Haurrek bere jardueran erabili dezaketena baino pixka bat zabalagoa izan da, baldin eta mugitzeko eta batetik bestera ibiltzeko aukera ematen badie, elkarri trabarik egin gabe.
- b) Zenbat eta handiagoa izan eremua, orduan eta mesedegarriagoa jolaserako eta mugimendurako.
- c) Garrantzitsua da zorua bigungarria izatea.



27. Batzuetan, familien eta haien seme-alaben eskolaren arteko harremanen ezaugarria urruntasuna da, baita desadostasuna ere. Aukera hauetatik, zein ez da estrategia on bat gurasoen inplikazioa sustatzeko?

- a) Haur eskolak lankidetzaren aurrean zeregin proaktiboa hartu behar du, erreaktiboa baino gehiago: denbora eskaini eta ahalegina egin behar du familiak motibatze eta prestatzeko.
- b) Guraso bakarreko familiek, gutxiengo etniko eta kulturaletako familiek edo ingurune sozial eta ekonomiko behartsuetakoek gainerakoek baino oztopo handiagoak izaten dituzte; ondorioz, lankidetzaren maila txikiagoa izaten dute, eta eskolak ezin du horrekin ezer egin.
- c) Abiapuntu gisa familiak eta irakasleak berdintzat hartzea, eskolatik familiek hezkuntza-prozesuari egiten dioten ekarpena aitortuz eta baloratuz. Hori dela eta, lankidetzaren lana planteatuko dute, elkarriketarako eta elkarrekiko konfiantzarako giro batean, familiek eskolaren erabaki garrantzitsuetan parte hartu behar dutela onartuta.

28. Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumazartzen duen ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren 10. artikulua arabera, zer bilatzen dute metodo pedagogikoak?

- a) Haurren autoestimua eta gizarteratzea sustatzea, esperientzietan, jardueretan eta jolasean oinarrituta, goxotasun eta konfiantza giroan.
- b) Haur bakoitzaren hasierako baldintzak eta bilakaera intelektualaren erritmoa eta ezaugarriak identifikatuko dituen ebaluazio globala.
- c) Esku-hartze prozesuetan gerta daitezkeen zailtasunak garaiz detektatzea ahalbidetuko duten prozedurak.

29. Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumazartzen duen ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren 7. artikulua arabera, Haur Hezkuntzaren etapan ez da beharrezkoa honako hauek kontuan hartzea:

- a) Garapen globalaren estandarretan finkatzen diren kalitate-helburuak.
- b) Esperimentazioa eta jolasa.
- c) Ikaskuntza-esperientzia adierazgarri, globalizatu eta emozionalki positiboak.

30. Konpetentziak bereganatu eta garatzeko metodo pedagogikoak ikaskuntza egoeren diseinuan oinarritu behar dira. Zein da erantzun okerra?

- a) Ikaskuntza egoerek desafio edo arazo bat planteatu behar dute, haurren adin eta garapenaren araberrako konplexutasuna izan den duena, haurrak, hura sormenez ebazteko, etapa antolatzen duten hiru arloetan ikasitakoa abian jar dezan modu integratuan.
- b) Talde lanaren gainetik banakako lana sustatuko duten egoerak proposatuko dira, kontuan hartuta haur bakoitzak behar ezberdinak dituela.
- c) Hiru arloak elkarren artean lotura estua duten esperientzia esparruak direnez, hezkuntza planteamenduak sustatu beharko du ikaskuntza egoera holistikoak sortzea.

31. David Altimir-en arabera, zeintzuk dira dokumentazio-prozesuan atzeraelikatzen diren elementuak?

- a) Entzutea, behatzea, interpretatzea, dokumentatzea.
- b) Planifikatzea, behatzea, interpretatzea, dokumentatzea.
- c) Entzutea, planifikatzea, behatzea, dokumentatzea.



32. Haurrek haur-eskolan bizitzen dituzten eguneroko uneei dagokienez, zein da erantzun okerra?

- a) Zaintza edo arreta pertsonaleko uneak hurrekin loturak ezartzeko aukera bat dira.
- b) Bazkarian elkarriketa bat ezartzen da, non erritmoa helduak markatzen duen eta haurrak jarraitzen dion. Elkarriketa hezitzaileak jateko unea hurbiltzen ari dela jakinarazteko biberioia edo lorde-zapia erakusten dion unetik hasten da.
- c) Presentziatik, entzutetik eta laguntzetik abiatuta, hezitzailea une desberdinetara egokituko da, haurren beharrak entzuten direla eta beteta daudela bermatzeko.

33. Myriam David eta Geneviève Appellen arabera, haurren eguneroko bizitzako oinarritzko printzipioak kontuan hartuta, erantzun hauetatik, zein da zuzena?

- a) Haurrari bere buruaz eta inguruneaz jabetzen laguntzeko beharra. Hizkuntzaren bidez eta elkarriketarako zabalik dagoen begirada bilatuz, hezitzaileek haurren mugimendu eta ekintzei esanahia ematen diete.
- b) Jarduera autonomoaren balioa. 6 hilabeteetatik aurrera, haurra bere kabuz erabakitze eta ekiteko gai da, bere ekintza-proiektuak gauzatze aldera.
- c) Beste haurrekiko gizarte-harremanaren balioa, konfiantzazko eta segurtasunezko harremanak ezarri.

34. Judit Falk doktorearen arabera, zein da erantzun okerra benetako autonomiaren ikusmoldeari dagokionez?

- a) Autonomia, berez, helburu bat da.
- b) Autonomiak ez dauka benetako baliorik harekin batera haurrak ez badu gauzak bere kabuz egiteko plazera sentitzen.
- c) Zaintza-uneetan, haurrak bakarrik egin ezin dituen mugimenduetan, helduak modu delikatuan aurkitu behar du zein den esku hartzeko une egokia, haurra porrot eginda edo larrituta sentitu ez dadin, sostengatuta eta lagunduta baizik.

35. Objektuengatiko gatazka haur batek beste bati objektu bat kentzen dionean gertatzen da. Sonia Kliasek proposatzen du haurrek eskatzen ikastea izatea egoera horien helburua. Egile honen ikuspegitik, zein da jokabide zuzena?

- a) Jostailuak modu berdinean eta denbora-tarte berdinerako banatzea.
- b) Egoera bidegabekotzat jotzen bada, objektua itzultzeko eskatuko diogu haurrari, eta hori egiten ez badu, garrantzitsua da helduak hari kentzea.
- c) Haurrek kudeatzen ahal dituzten egoeretan, helduak ez luke esku hartu behar.

36. Hiru erantzun hauetatik, zein da zuzena?

- a) Ikastetxeko zuzendaritzaren funtzioak ikasturte bakoitzean eguneratu eta zehaztu behar dira.
- b) Zuzendaritzaren funtzioak Ikastetxeko Ildo Pedagogikoan markatzen dira.
- c) Zuzendaritzaren funtzioek Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan sartuta egon behar dute.

37. Proposamen pedagogikoa prestatzea eta haren jarraipena egitea noren ardura da?

- a) Ikastetxeko zuzendariarena.
- b) Eskolako lantaldearena.
- c) Haur Hezkuntzako Irakasle titulua edo Graduoko titulu baliokidea duen profesional batena.



38. Zeintzuk dira laneko motibazio intrintsekoko tekniken ezaugarriak?

- a) Parte-hartzea bultzatzen dute eta komunikazioa sustatzen dute.
- b) Posizioan gora egiteko eta lorpenak aitortzeko aukera bat dira.
- c) Trebetasun pertsonalen ikaskuntzarekin eta garapenarekin lotuta daude.

39. Honako hauek erabakiak hartzeko isuri kognitiboak dira, normalean nahigabekoak; informazioa prozesatzea zailtzen dute eta erabakiak hartzerakoan maila desberdinetako hutsegiteak ekar ditzakete eta akats sistematikoak eragin:

- a) Ezabatze alderako isuria, autoritatearen aldeko isuria, pentsamendu indibiduala, egokitzapen hedonista, halo-efektua eta disonantzia kognitiboa.
- b) Berreste alderako isuria, erabaki ezinaren aldeko isuria, talde-pentsamendua, egokitzapen egolatra, ispilu-efektua eta disonantzia kognitiboa.
- c) Berreste alderako isuria, autoritate-alborapena, talde-pentsamendua, egokitzapen hedonista, halo-efektua eta disonantzia kognitiboa.

40. Eskolan sortzen diren gatazkak konpontzeko orduan, teoria asko ditugu. Horietako bat Komunikazio ez bortitza da (gaztelaniaz CNV bezala laburtua, komunikazio errukiorra edo elkarlaneko komunikazioa ere esaten zaio). Nork garatu zuen?

- a) Daniel Golemanek.
- b) John Deweyk.
- c) Marshall B. Rosenbergekin.

41. Erantzun enpatikoak erabiltzeko baliabideetako bat da entzuten duenaren beharretan oinarritutako erantzunak saihestea. Erantzun egozentrikoak deritzen azken horiek deskribatzeko, zein da definizio okerra?

- a) «Zu mezuak» askotariko komunikazio-erak dira, eta komunikaziorako oztopo gisa agertzen dira.
- b) Komunikatzailearen autoestimua murrizten duten mezuak transmititzen dituzte, subjektuak bere arazoak konpontzeko duen gaitasuna ukatzen edo zalantzan jartzen delako, eta ez delako behar bezala baloratzen komunikatzaileak pentsatzen, sentitzen edo giten duena.
- c) Komunikatzaileari bere mezuaren dimentsio ezberdinak (sentimendua, azalpenaren edukia eta eskaria) ulertu direla adierazteko teknikak dira.

42. Eric Bernek 1950eko hamarkadaren amaieran analisi transakzionalaren teoria garatu zuen; psikoterapiako teoria eta metodo horren bidez Egoaren egoera zehazteko transakzio sozialak aztertzen dira. Horren arabera, zeintzuk dira Bernek bereizi zituen Egoaren egoerak?

- a) Hauraren Egoaren egoera, nerabearen Egoaren egoera, helduaren Egoaren egoera.
- b) Gurasoaren Egoaren egoera, helduaren Egoaren egoera, hauraren Egoaren egoera.
- c) Egoaren egoera lehen haurtzaroan, Egoaren egoera haurtzaroan, Egoaren egoera gaztaroan, Egoaren egoera helduaroan eta Egoaren egoera zahartzaroan.



43. Daniel Golemanek defendatzen du emozio suntsitzailleak trebetasun emozionalak menderatuz kudea daitezkeela, eta hori bihotzaren hezkuntza esaten zaionaren bidez lortzen dela. Mendebaldeko psikologiak bihotzaren hezkuntza errazten duten faktoreetako batzuei buruz emandako datuak aurkezten ditu, eta guraso-loturarekin lotutako ondorio batzuk adierazten ditu. Ondorio hauetatik, zein da okerra?

- a) Ikerketen arabera, familiek haien seme-alaben emozio negatiboak –haserrea eta tristura– aitortzen dituztenean eta horiei aurre egiten laguntzen dietenean, denboraren poderioz, hurrek haien emozioak fisiologikoki erregulatze gaitasun handiagoa dute eta jokaera positiboagoa agertzen dute.
- b) Amaren depresioa da haurraren garapen emozionala arrisku larrian jartzen duten aldagaietan nagusia. Horregatik, ama triste, apatiko edo deprimituen seme-alabak oldarkorrangoak, antsietate handiak eta depresioak dira.
- c) Gabezia afektiboak ez du neurotransmisoreen tasan eragiten, dopaminan kasu, eta, ondorioz, ez du eraginik garunaren garapenean eta plastikotasunean.

44. Marshall Rosenbergekin garatutako tesien arabera, haserreak aukera paregabea ematen digu komunikazio ez bortitzean sakontzeko. Aukera hauetatik, zein ez dator bat Rosenbergen tesiekin?

- a) Gure haserrea bortizkeriarik gabe erabat adierazteko, lehen urratsa da beste pertsona edozein erantzukizunetatik bereiztea.
- b) Amorrak gure ase gabeko beharrak zein diren konturatzeko aukera ematen digu.
- c) Garrantzitsua da pentsatzen eta sentitzen duguna zintotasunez adieraztea, besteak nire emozioetan duen erantzukizuna adieraziz.

45. Asertibitateari dagokionez, aukera hauetako zeinek jasotzen du haren kontzeptu desitxuratu bat?

- a) Asertibitateak esan nahi du pertsona batek zer nahi duen, zer desio duen, zer behar duen, zer sentitzen duen errespetuz adieraztea, beste aldearen beharrak ulertzera irekita.
- b) Asertibitatearen helburua esateko zailak diren gaiak leuntzea da.
- c) Asertibitatea norberaren usteen errespetuan oinarritzen da, besteei inposatu nahi izan gabe.

46. Enpresa-kudeaketan erabiltzen den teknika bat da datu ugari taldeka sailkatzea. Talde horiek alfabetoko lehen letrakin izendatzen dira maiz, A, B, C eta D, eta hortik datorkio izena. Jarduerak irizpide orokor hauen arabera sailkatzen dira:

- a) **A** – Premiazkotzat eta garrantzitsutzat jotzen diren zereginak, **B** – Zeregin garrantzitsuak, baina ez presazkoak, **C** – Garrantzi gutxiko zereginak, baina premiazkoak, **D** – Ez garrantzitsuak ez premiazkoak diren zereginak.
- b) **A** – Premiazkotzat eta garrantzitsutzat jotzen diren zereginak, **B** – Zeregin garrantzitsuak, baina eskuordetu daitezkeenak, **C** – Garrantzi gutxiko zereginak, baina eskuordetu ezin direnak, **D** – Ez garrantzitsuak ez premiazkoak diren zereginak.
- c) **A** – Premiazkotzat eta eskuordetu ezinezkotzat jotzen diren zereginak, **B** – Zeregin garrantzitsuak, baina ez presazkoak, **C** – Oso garrantzitsuak diren baina premiazkoak ez diren zereginak, **D** – Ez garrantzitsuak ez premiazkoak diren zereginak.



47. Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren Laneko Arriskuen Prebentzioko Planaren arabera, noren eginkizuna eta ardura da “Langileei kontsultak egitea haien segurtasuna, osasuna eta lan-baldintzak ukitzen ahal dituzten erabakietan”?

- a) Ikastetxeko zuzendaritzarena.
- b) Gerentziarena.
- c) Iruñeko Udalarena, Tokiko Gobernu Batzarraren bidez.

48. 2021-2023 aldirako Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemaren Hezkidetza Planari dagokionez, zein da erantzun okerra?

- a) Ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan hezkidetza arautzen duen abuztuaren 18ko 72/2021 Foru Dekretuaren I. kapituluan planteatutako helburuekin bat datorren erantzun sistematizatu, eraginkorra eta koherentea bermatzeko estrategia ezartzen du.
- b) Abuztuaren 18ko 72/2021 Foru Dekretuaren xede diren ikastetxe guztietan hezkidetza-nortasuna ezartzeko, finkatzeko eta eraikitze prozesu bat planteatzen du, ikasleen berdintasunezko garapen integrala bermatzeko.
- c) Lehen Hezkuntzatik aurrera hedatzen den Plana da, eta ez dio 0-3 etapari eragiten.

49. 12 hilabetetik beherako haur bati zerbait kontrako eztarritik joaten bazaio, zein da jarduketa zuzenena?

- a) Objektua ahotik itsumustuan, ikusi gabe, ateratzen saiatzea.
- b) Heimlich maniobra egitea.
- c) Haurrak ez badu konortea galdu eta eztulka ari bada, eztulka jarraitzera animatzea.

50. Konbultsio baten aurrean, zer ez da egin behar?

- a) Haurrarekin egon eta konbultsioak zenbat irauten duen kronometratu, familiari jakinarazi ahal izateko.
- b) Haurra segurtasun posizioan jarri, albo batera eta saihestaldean bermatuta.
- c) Txupetea jarri mihiari hozka egin ez diezaion.



ERRESERBAKO GALDERAK

1. Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 7. artikuluekin bat, adingabeek adostasuna emateari dagokionez:

- a) Adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da 16 urte baino gehiago baditu, ez bestela.
- b) Adingabe baten datuen tratamendua berak emandako adostasunean oinarritu ahalko da 14 urte baino gehiago baditu, ez bestela.
- c) Adingabe baten datu pertsonalak tratatzeko, gurasoen edo tutoreen baimena behar da.

2. Haur Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta haien antolamendua ezartzen dituen otsailaren 1eko 95/2022 Errege Dekretuaren 13. artikuluen arabera, desberdintasun indibidualen arretari buruzkoa, zein da erantzun okerra?

- a) Banakako arreta izanen da irakasleen eta hezkuntzako gainerako profesionalen hezkuntza-ekintzaren jarraibide arrunta.
- b) Ikastetxeek neurri egokiak hartuko dituzte hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleentzat.
- c) Hezkuntza arloko esku-hartzeak ikasleen homogeneousutasuna kontuan hartuko du, eta hezkuntza haurren ezaugarri pertsonal, behar eta interesetara egokituko du, antzeko taldeetan multzokatuta.

3. Alfredo Hoyuelosen arabera, hauek dira dokumentazio-prozesuan, argazkiak aukeratu eta aztertze kontuan hartu beharreko irizpideetako batzuk:

- a) Irudiaren kalitate teknikoa: planoen konbinazioa eta ekintzen sekuentziaren antolaketa.
- b) Ereduak agertoki estetiko gisa apaintzea.
- c) Haurren eta eskolaren irudia Hezkuntza Proiektuaren balio teorikoekin koherentea izatea.

4. Hiru erantzun hauetatik, zein da zuzena?

- a) Taldea eta ekipoa gauza bera dira.
- b) Talde batek lidergo partekatua du.
- c) Ekipo batek ardura indibiduala eta kolektiboa ditu.

5. Espainiako Pediatria Elkartearen arabera, noiz sartu behar dira, beranduenez, testura pikortsu eta erdisolidoak?

- a) 8-9 hilabeterekin.
- b) 12 hilabeterekin.
- c) 6 hilabeterekin.